

azpeitianzer?

udal aldizkaria | 54. zenbakia
2013ko otsaila



estrategikoa 2025



Langabeziari
aurre egiteko hiru
proiektu garatuko
dira eskualdean




Inauteriez gozatzeko
guztia prest dago
Azpeitian

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Inauteriak
- 6 Enplegu plana
- 8 Denon artean
- 12 Motxak
- 14 Gutuna - Imanol Elias
- 15 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzaitetza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Otsailaren 5, 11, 16, 17, 21 eta 28

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Otsailaren 2, 3, 14 eta 26

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Otsailaren 4, 9, 10, 15, 20, 22 eta 27

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Otsailaren 6, 12, 18, 23 eta 24

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Otsailaren 1, 7, 8, 13, 19 eta 25

Udal zerbitzua

Egin zure proposamenak webgune bidez!



Azpeitiko Udalak herritarrek dituzten iritzi eta proposamenak jaso nahi ditu eta horretarako, www.denonartean.net webgunea egokitu du.

Bertan, Udal Gobernuaren helburua, parte-hartze ordenantza edota bileren egutegia jakiteaz gain, proposamen zehatzak emateko aukera eskainiko da “proposamenak” atalaren barruan. Gainera, 2012ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren balantzea kontsultatu eta 2013koaren jarraipena egitea ahalbidetzen da. Azpeitiko Udalak webgune berria erabiltzera animatu nahi ditu herritarrak.

Animatu eta hartu parte!



Udal erabakiak

Abenduaren 13an Udalbatza bildu zen honako gai hauek landu eta erabakitzeko:

- 1.- Bileraren ohizkanpoko eta presako izaera berretsi zuten aho batez.
- 2.- Azpeitiko Arau Osagarrien “Auzaraza” 15. H.I.E. eremurako Plan Bereziari BEHIN BETIKO onarpena aho batez eman zitzaion.

Bestalde, urtarrilaren 8an egindako Udalbatzan honako erabaki hauek onartu ziren:

- 1.- Udalbatza Osoak 2012ko azaroaren 6an eta abenduaren 4an egindako bilkuren aktak aho batez onartu ziren.
- 2.- Azpeitiko Udalaren batzorde berriemaileak onartzeari dagokion aldaketa aho batez onartu zen.
- 3.- Nuarbe 15eko eraikuntzako etxebizitza eta garajeak alokatzeko espediente aho batez onartu zen: zozketa ondoren hutsik geratu direnak zuzenean alokatzeko akordioa, deialdiaren baldintzak betez gero.
- 4.- Azpeitiko Udalak eta Instituto Catequista Dolores Sopeña kongregazioak 2003. urtean egindako salerosketaren luzapen eskaeraren berri eman zen.
- 5.- Alkatetzak 2012ko maiatzean eta ekainean emandako ebazpenen berri eman zen.
- 6.- 2012ko aurrekontua luzatu dela kontu eman zen.
- 7.- Bildu taldeak aurkeztuta HERRIRA mugimenduaren mozioa, Bilduren aldeko bozkei esker onartu zen. EAJ abstenitu egin zen eta Hamaikabatek ez zuen bozketan parte hartu.

Azkenik, otsailaren 5eko Udalbatzak hartu zituen erabakiak honakoak izan ziren:

- 1.- Udalbatza Osoak 2012ko abenduaren 13an eta urtarrilaren 8an egindako bilkuren aktak aho batez onartu zituzten.
- 2.- Jesus Mari Larrañaga Lesaka zinegotziak aurkeztu duen dimisio idatzia aurkeztu zen.
- 3.- Jose Antonio Agirre Plazaren azpiko garajeak berritzeko proiektuari dagokion eraikuntza, instalazio eta obren zergaren %95eko hobaria ematea aho batez onartu zen.
- 4.- Azpeitiko Udalaren 2012. ekitaldiko aurrekontuan eman den 5. kreditu aldaketaren berri eman zen.
- 5.- Alkatetzak 2012ko uztailean, abuztuan eta irailean emandako ebazpenen berri eman zen.



Azpeitia guztia mozorrotuta

Udalak Inauterietan parte hartzera gonbidatu nahi ditu herritarrak

Kaldereroek aurreko astean iragarri zuten bezala, Inauteriak iritsi dira Azpeitira eta festa giroan murgilduko da herria 3 egunetan zehar. Igandeko Elegante Egunarekin hasi eta asteartea bitartean ez da aitzakiarik izango jaiaz ez gozatzeko.

Igandean jantzi eta arropa dotoreak armairutik atera beharko dira. Azpeitiko kaleak mendeetan salto egingo du atzera, aiton-amonen garaietara hain zuzen ere. Urteroko sokamuturrak, musikak, artzain-inudeak eta argazki erakusketak ez dira faltan botako, baina berrikuntzak ere izango dira. Horrela, 16:00ak aldera, puru piztea egingo da plazan.

“Herritarren partaidetza gabe Azpeitiko Inauteriek ez lukete duten indarra izango”

Astelehen goizean haurrak izango dira protagonista nagusiak. Piratak, toreroak, pailazoak, printzesak, super heroiak... bandaren laguntzarekin Alde Zaharreko kaleak igaroko dituzte eta plazara iritsiko dira, bertan dantza egiteko aukera izango dutelarik. Gauean aldiz, helduek euren imajinazioa erakutsi beharko dute. Umorea edota originaltasuna erabiliz, Udalak osatutako epai-mahaia konkistatzen saia-

tu beharko dira 01:30ean udaletxean banatuko diren sarietako irabazleak izan nahi badute behintzat.

Bukatzeko, asteartean ekitaldi ugari izango dira eta aurtengo Inauteriei amaiera emanez, suzko zezena izango da plazan 20:00etatik aurrera. Udal Festa Batzordeak Inauterietan parte hartzeko gonbitea egiten die herritarrei: “Herritarren partaidetza gabe Azpeitiko Inauteriak ez lukete duten indarra izango. Horregatik, aldeztu aurretik, eskerrik beroenak eman nahi diegu herritarrei festa parte-hartzaileak eta politak antolatzen eta izaten laguntzeagatik. Ondo pasatu dezazuela!”, agertu du Mikel Ibarzabal Festa batzordeburuak.

inauteriak egitaraua 2013



Igandea, ELEGANTE EGUNA



9:00etan Izarraitz Txistulari taldearen DIANA

11:00etan DIANA Udal Musika Banda eta Biasteriko dultzaineroen eskutik

12:00etan SOKAMUTURRA eta XXXIV. SOKAMUTUR ARGAZKI LEHIAKETA "IMANOL ELIAS" SARIA Argazki Elkarteak antolatuta

12:30ean ELEGANTEEN PASIERA

ITSASI taldearen eskutik ARTZAIN-IÑUDEAK danbor-joleekin eta aurtengo San Sebastian jaietako karrozarekin

JUAN DE ANTXIETA MUSIKA ESKOLAKO txistulariak kaleetan zehar

15:00etan Plazan, LUNTXA, jarraian PURU PIZTEA

16:00ean DULTZAINEROEKIN KALEJIRA

16:15ean Zezenaren irteera girotzeko, Izarraitz txistulari taldeak eta Udal Musika Bandak hainbat doinu joko dituzte. Ondoren, txistulariek zezenak egingo duen ibilbide bera egingo dute, kalerik kale txistua joaz.

16:30ean SOKAMUTURRA

19:30etik 23:30era INCANSABLES eta GAU ARGI txarangen emanaldia kaleetan zehar

Astelehena, ASTELEHEN INAUTERIA

10:00etan Goiz-eresia IZARRAITZ Txistulari taldeak

11:00etan SOKAKO ZEZENA Erdi Kanean eta ...

ZEZEN TXIKIAK eta PONIAK Plaza Nagusian

12:30ean Herriko Banda Gaztea eta Txiribiteroen kalejira

Mozorrotutako haurren desfilea, erraldoi, buruhandi, herriko banda gazte, txilibitero eta Musika Eskolako trikitilarien laguntzarekin. Bukaeran, gaztetxoentzat dantzaldia, buruhandiek jolasak eta gozokiak

16:15ean Zezenaren irteera girotzeko, Izarraitz txistulari taldeak eta Udal Musika Bandak hainbat doinu joko dituzte. Ondoren, txistulariek zezenak egingo duen ibilbide bera egingo dute, kalerik kale txistua joaz.

16:30ean SOKAMUTURRA

19:30ean Udal Musika Bandaren Kalejira

19:30etik 23:00era UROLATARRAK TXARANGAK kaleetan zehar

23:00etan Itsasi taldeko TTUNTTURROAK

Helduen Mozorro lehiaketa

LOS PASAI txaranga eta BRINCADEIRA taldea kaleetan zehar

01:30ean Mozorro lehiaketaren SARI BANAKETA Jarraian, Sanagustin kulturgunean DJ emanaldia



Asteartea, ASTEARTE INAUTERIA

2:00etan LOS PASAI txaranga plazan eta kaleetan zehar

6:15ean Musika Bandaren eskutik GOIZ-ERESIA

6:45ean Zezenaren irteera Izarraitz Txistulari taldeak eta Udal Musika Bandak girotuta

7:00etan SOKAMUTURRA

12:00etan Herriko Banda Gaztearen kalejira

16:00etan UMEENTZAKO JOLASAK ETA PARKEA Olazko Andre Mariaren Plazan

16:15ean Zezenaren irteera Izarraitz txistulari taldeak, herriko banda gazteak eta Julian Barrenetxea Abesbatzakoek girotuta. Txistulariek zezenaren ibilbidea irekiko dute kalerik kale txistua joaz.

16:30ean SOKAMUTURRA

20:00etan 2013ko Inauteriei amaiera emanez, SUZKO ZEZENA Plazan.



Pello Bastarrika Azkoitiko alkatea, Eneko Etxeberria Azpeitikoa, Leire Etxeberria Zestoako eta Alvaro Villar Aizarnazabalgoa.

Ekobailara, formazio espezializatua eta auto-enplegua garatuko dira bailaran enplegua sustatzeko


Urola Erdiko sei Udalak lehenbizikoz bildu eta estrategia bateratua egin dute

egungo egoera ekonomikoari itzulita emateko asmoz, Urola Erdian enplegua sustatzeari ekin zioten bailarako sei Udalek (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil, Beizama eta Aizarnazabal) buru-belarri eta dagoeneko, azken fasean sartu dira.

“Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil, Beizama eta Aizarnazabal elkarlanean aritu dira”

Enplegu Plana abian jarri zuten, eta partaidetza foroan eragile eta herritarrek proposatutako proiektuak eta aukeraketa ere egin dute. Aurkeztu ziren proiektu guztiak, 3 denara, aukeratu dituzte eta hirurak garatuko dira.

Honakoak dira aukeratutako proiektuak:



1. Ekobailara garatzeko sei lanpostu sortzea:

Enplegu plana garatzeko egin diren bilerak, hausnarketa eta ikerketek argi erakutsi dute ekoteknologia, ekonomia berde eta jasangarritasunaren arloak aukera ugari eskaintzen dituela. Bide horretatik, Urola Erdia 'Ekobailara' gisa garatzeko proposamen bat jaso da eta horren aldeko apustua egin dute udalak.

'Ekobailara' horren helburuak jasangarritasunean oinarritutako garapen ekonomikoa sustatzea, ingurumena hobetuko luketen produktu eta zerbitzuak garatzea, bertako nekazaritza eta produktuen aldeko apustua eta herritarren kontzientziazioa izango dira.

Proiektu hori gauzatzeko sei lanpostu beharrezkoak direla eta, kontratazio hori egiteko erabiliko da diru-laguntza. Sei langile horiek, aipatutako helburuak lortzeko, besteak beste, baserriaren produktuen komertzializazioa, herritarren kontzientziazioa edo ekoteknologiak eskaini ditzazkeen jarduera berrien azterketa ekintzak sustatuko dituzte.

2. Langileen berkualifikaziorako ikastaro espezializatuak.

Enplegu planaren garapenean argi gelditu da bailarako langileak orokorrean formazio baxua duela eta egungo lan merkatuaregokitzeko berriz formatzea ezinbestekoa izango dela. Aurreikuspenen arabera, etorkizunean honako alorrek dute aukera gehien lan merkatuan: gizartearen zahartzea eta hiruugarren adinekoen ongizatea; konektibitatea, informazio eta komunikazio teknologiak eta mundu digitala; kudeaketa komertziala eta internalizazioa; eta fabrikazio aurreratua eta bioteknologia.

Hori horrela izanda, alor horietan espezializatzeko formazioa eta ikastaroak emango dira langabezia edo erregulazio espedientepean dauden langileentzat.

3. Ekintzailetasun sustatzeko hainbat proiektu finantzatzea.

Egitasmo horietan, besteak beste, informazioa, komunikazioa eta teknologia arloko ekimenak bultzatuko dira.

Bailarako sei udalerriko alkateak sozio-ekonomia kontuetan elkarlanean aritu diren aurreneko aldia da eta horrek bide berrak irekiko dituelakoan daude alkateak. Baina bailarako egoera hobetzeko gainerako instituzioen laguntza ezinbestekoa dela uste dute eta hala egitea eskatu dute. "Argi dago hezkuntza eta formazioa dela krisia gainditzeko gakoetako bat. Baina horretan, adibidez, udalak ez dugu eskumenik eta Jauriaritzatik egin behar dute ahalegina". Enplegu planarena pausu bat dela adierazi dute, baina bide horretan elkarlanean ahaleginetan segitzeko konpromisoa hartu ere bai.

Plana garatzerakoan, sei udalerriek atera dituzten konklusioak anitzak izan dira:

• Lehenbizikoz bailara bildu eta estrategia bateratua egiten dela

1. Sektore ekonomiko guztien parte-hartzea izan du prozesuak; merkataria, turismo, industria, ekonomia...
2. Askotan diagnostikoa egin eta horretan gelditzen dira proiektuak, baina haratago joan gara, egitasmo konkrituak egitera iritsiz
3. Prozesuak erakutsi digu bailarak hutsuneak eta gabeziak dituela, ektuktura aldetik batik batik, udal guztiek batera lan egiteko forurik ez dugu, Mankomunitatea bakarrik baina zaborra lantzen da bertan.
4. Beste instituzioen kolaborazioa behar dugu, kasu honetan, Lanbidek diru laguntza (%70, 117.000 euro), Udalak bakarrik ezin inbertsioei aurre egin. Elkarlana behar: Jarraipena eman nahi zaio baina Udalek bakarrik ezin dute.


erreportajea



Epe luzeko plangintza estrategikoa herritarren partaidetzarekin egin nahi du Udalak

azpeitiko Udala jakitun da egun herriak bizi duen egoeraz. Garai ekonomiko zailak bizi ditugu eta biziko ditugu ere hurrengo hilabeteetan. Krisi ekonomikoaren ondorioak larriak dira, eta ditugun arazoei ezin diogu aurre egin bakoitzak bere aldetik, edota sektorez sektore isolaturiko erabakiak hartuz. Denon artean, indarrak batuta, egin behar diogu ezinbestean aurre etorkizunak planteatzen dizkigun erronkei. Horrela egiten badugu, gainera, indartsuagoa izango da Azpeitiko gizartea eta herria bera.

Egoera zaila izanda ere, krisi gogor honek aukera ere ematen digu, banakako ikuspuntu, partikularretik, ikuspuntu orokorra bateratzeko, elkarrekin aurrera begiratzeko, epe laburreko morrontzarik gabe. Batez ere, ekonomiatik datorkigun erronkak elkarrekin irabazi behar ditugu.



Eneko Etxeberria alkatea, EAJ-ko Aitor Gorrotxategi eta Hamaikabateko Aitor Arangurenekin

ERAGILEEN ARTEKO ERLAZIOA



Horregatik, Azpeitiko Udaleko hiru alderdiek (Bildu, EAJ eta Hamaikabat) epe luzeko estrategia bat lantzea erabaki dute: Azpeitia 2025 estrategia. Estrategia hori, parte-hartze prozesu zabal eta kontrastatu batez landuko da, harremanak saretuz eta finkatuz. Azpeitiko garapena bultzatu nahi duten herritarren eta elkarten sarearekin, Azpeitiko gizartea kohesionatzeko eta integratzeko pausuak emateko asmoa dute.

Azpeitia 2025 estrategia prozesuaren ildo nagusiak ondorengoak izango dira:

- Diagnostiko batetik abiatuko gara nola gauden jakiteko, abiapuntua zehaztuko dugu.

- Etorkizuneko Azpeitia irudikatzen ezinbestekoa da adostasunean oinarrituriko ikuspegi bat izatea.

- Etorkizunean Azpeitiak dituen erronkak zehaztuko ditugu

- Egungo eta etorkizuneko Azpeitirako helburu zehatz batzuk finkatzeko erabiliko dugu prozesua.

- Helburuak ekintza bilakatu eta gauzatu ditugu.

- Nork egingo dugu? Denon artean egingo dugu, herritarrak, elkarteak, enpresak, teknikoak eta Udalordezkariak izango dugu parte hartzeko aukera.

“Estrategia parte-hartze prozesu zabal eta kontrastatu batez landuko da”

“Ikuspuntu guztietatik ekarpenak jasoz, bideak berak erakutsi behar digu elkarrekin aritzen, eta lehenak, eredia ematen Udaleko alderdiak izan behar dugu. Epe luzeko plangintza estrategikoak aukera bikaina eskaintzen digu elkarrekin etorkizunari begiratzen dion Azpeitiaren eredia adosteko, eta epe ertain eta luzerako erreferentzia-puntuak zehazteko, eta horretan lanean jartzeko”, agertu dute Bildu, EAJ eta Hamaikabat taldeetako buruak diren Eneko Etcheberriak, Aitor Gorrotxategik eta Aitor Arangurenak.



Azpeitiko Udaleko talde politikoetako (Bildu, EAJ eta Hamaikabat) zinegotziak

Azpeitia 2025: Plan Estrategikoa prozesu parte-hartzearen epeei dagokienez, prozesuarekin uztailan amaitzea espero dute Udal ordezkariak, Udalbatzan onartu beharko delarik azken pausu bezala. Zehaztutako lan ildoak eta helburu zehatzak, Udaleko aurrekontuei lotzea da asmoa, eta urtez urte estrategiari jarraipena

egitea, elkarrekin urtero gogoeta eginez. “Politikoki, estrategia honek legealdiak gainditzea eta herritar guztion estrategia bilakatzea du helburu. Etorkizuna irabazi behar dugu, ditugun erronkei aurrea hartuaz eta horretarako partekatutako proiektuz beteriko estrategia tresna egokiena da”, azaldu dute.

**“Politikoki, estrategia
honek legealdiak
gainditzea eta
herritar guztion
estrategia bilakatzea
du helburu ”**



Horrela, gaiak duen garrantzia ikusirik, Udal ordezkariak dei egiten diete herritarrei prozesuan parte hartu eta partaide aktiboak izan daitezen: “Krisi honetatik denok batera aterako gara, edo ez gara aterako. Horregatik, azpeitiarrei gure herriaren etorkizunerako lan egiteko gonbitea luzatzen diegu. Animatu eta hartu parte Azpeitiko etorkizuna eraikitzen!”, adierazi dute.

Azpeitiarrak herrigintzako partaide

Orain arte Denon Artean prozesuan parte hartu duten 600 herritar ingururi eskerrak eman nahi zaizkie



Azpeitia Denon Artean 2013 prozesuak aurtengo aurrekontuak osatzeko orduan, herritarren iritziak biltzea du helburu nagusitzat. Auzo eta arloetako batzarrak bukatutzat eman direnean, lehen balorazioa egin du Udalak. Horrela, orain arte parte hartu duten 600 herritar ingururi eskerrak eman nahi zaizkie.

“Iazko prozesuaren parte-hartze kopuru antzekoak ari gara izaten eta jasotzen ari garen ekarpenak ugariak dira, bai batzarretan jaso direnak eta bai buzoietan jaso direnak. Buzoiak lehenbizikoz jarri dira eta izan duten arrakasta handia izan da. Gainera, jasotzen ari garen ekarpenek argi erakusten dute herritarrek elkarlanerako eta auzolanerako borondatea eta konpromisoa. Besteak beste, auzo-alkateen figura gehiago sortzeko beharra, bidegorri eta mendi ibilbideak egitea edota etorkinen mahaia sortzea proposatu dituzte herritarrek”, agertu dute Udal ordezkariak.

“Iazko parte-hartze prozesuan izandako kopuru antzekoak izaten ari gara ”



Herritarrengandik eta udaletxeko langileengandik jaso dira iritzi eta proposamen guztiak eta orain, Udalari dagokio ikusi, aztertu eta 2013ko aurrekontuetan txertatzea. “Ezinezkoa izango da proposamen guztiak sartzea aurtengo aurrekontuetan, baina gure konpromisoa ematen dugu bildutako guztiak aztertuko ditugula”, gaineratu dute arduradunek.

Azkenik, Azpeitia Denon Artean prozesu guztiaren balorazioa eta jarraipena eta 2013ko aurrekontuen azalpena ezagutzeko, Udalak herri kontseilua egingo du eta udaletxea herritarrei gerturatzeko asmoz, ate ireki jardunaldi bat prestatuko duela aurreratu du.

**Egin 2013ko jarraipena
www.denonartean.net
webgunean**



Gune irristakorretan, tratamendua

2 012 urtean zehar herritarren kexak jaso ondoren, gune amiskutsuetan tratamendu berezi bat egin du Azpeitiko Udalak arazoa ekiditeko. Herriko hainbat gunetan egin da tratamendua, besteak beste, Jose de Artetxe, Etxe Alai, Arana Goikoa, Sanjuandegi, Garate Anaia, Ibai Eder, Julian Elorza eta Ibai Ondo auzoetan eta Izarraitz pilotalekuaren eta Baigera I eraikineko sarreretan. Guztira, Azpeitiko zoruaren 2.350 metro karratu tratatu dira eta 19.000 euroko kostua izan du.


Euskara irizpideak lehiaketa publikoetan



a zpeitiko Udalak administrazio kontratueta hizkuntza irizpideak modu bateratuan ezariko ditu aurrerantzean, Udal-ekin egitasmoarekin bat egin ondoren. Hainbat erakunde eta administrazioek adostu duten protokoloa "eraginkorragoa" izango dela adierazi dute arduradunek. Horrela, ekimenak kontratazio alorrean eragingo du; hala nola, obra, homidura eta zerbitzu kontratueta eta herri lanen kontzesioeta ezarriko dituzte hizkuntzari dagozkion irizpideak.

Izarraitz frontoia, jolasleku


n egu aldean izaten diren eguraldi txar eta hotzak kontutan hartuta, Izarraitz pilotalekua larunbat arratsaldeetan haur eta gazteentzat zabaltzea erabaki du Udalak. Pilotalekuan bertan hainbat material eta jolas desberdin daude txikien eskura; pilotak, baloiak, badminton, mahai-jolasak, kartak... Jolastokiaren ordutegia 16:30etik 20:00etara bitartekoa da. Sarrera eta materiala kontrolatzeko pertsona bat dagoen arren, haurrak heldu baten ardurapean sartu eta jolastuko dira.



Ikur berria Kale Txikian

U rrestillako bizilagunek Azpeitiko Udalarri egindako eskaerari erantzunez, Udal ordezkariak trafiko ikur berria jarrazi dute Urrestillako Kale Txikian. Ikurra, Nuaberako bidearen aldetik sartuz gero ikus daiteke, zentzu bakarreko bidea baita bera. Modu honetan, aurrerantzean Kale Txikiko bi aldeetan ezingo da autorik aparkatu, eta horrela eginez gero, neumriak hartzen hasiko da Udaltzaingoa.

Argia automatikoa Frontoi Txikian



alde Zaharreko bizilagunek eskatutakoari erantzuna emanez, eta Alde Zaharra Biziberritzeko planean beste pauso bat emanik, Udalak interruptorea jami du argia pizteko Frontoi Txikian. 17:00etatik 22:00etara egongo da erabilgarri eta ordubeteko iraupena izango du. Jokoa jarraitzeko ordea, argiak itzeldu aurreko 5 minututan txirrina jo eta seinale bisuala egingo ditu sistemak, eta une horretan botoia berriro sakatzuz gero, 30 minutuz gehiagoz luzatuko da argia.

Herribideen inbentarioa, ikusgai

azpeitiko herribideen inbentarioari alegazioak egiteko epea luzatu du Udalak. Honela, otsailaren 28ra arte luzatuko da epe berria. Gaiak duen garrantzia ikusirik, Udal arduradunek epea luzatzea erabaki dute herritarrek denbora gehiago izan dezaten dokumentua ikusi eta beharrezkoa bada, alegazioak aurkezteko. Herribideen dokumentua ikusi nahi duenak, udaletxera jo besterik ez du bulego orduetan, 9:00etatik 14:00etara.

Judo eta karate gune berria



Urte berria gune berrian hasi dute Judo eta Karate elkarteek kiroldegian egin diren lanei esker. Obra hauekin, tarteko solairu bat atera da, espazio gehiago lortuz horrela kiroldegian. Tarteko solairu hau, spinning-eko gunearen goialdean kokatu da, sarrera azken solairutik duelarik. Eneko Etxeberria alkateak eta Manuel Unanue Kirol batzordeburuak azpeitiarren kirol-zaletasuna nabarmendu eta judo eta karate bezala, gutxi praktikatzan diren kirolak goraipatu zituzten inaugurazioan.

Erakusketa sorta zabala

betharram areto berriak erakusketa sorta zabala prestatu du uda bitartean. Juan Mari Olaizola eta Beatriz Pozo eta Miriam Quintanaren erakusketak egin dira dagoeneko eta aurrerantzean, beste hainbat arte espresioz gozatzeko aukera izango da bertan herriko zein inguruetako artistei esker; eskultura, pintura, argazkia, marrazkia... Betharram aretoa uztailan berriro zen eta egindako lanen artean, aretoaren handitzea eta zoru, sabai eta argi berriak jartzea egin ziren.

Eskerrik asko, Imanol. Eta adiorik ez.

Luciano Lazkano,
Jose Maria Bastida,
Julian Eizmendi,
Iñaki Errazkin alkate ohiak
Eneko Etxeberria alkatea

gure herriko historiaren puska
handi bat joan zaigu. Imanolen
heriotzak tristura eta emozioa
dakarkigu, baina batez ere, harrotasuna:
harro gaude gure herriak horrelako
herritarrak izateaz.

Ohore bat da Imanol Eliasen herrikide
izatea. Berak bezala, herriaren alde
egitea, Azpeitia maitatzea, azpeitiarrak
izatea, "egin eta egin" jarraitzea... Garai
hauetan inoiz baino garrantzitsuagoa

da Imanolen figura eta baloreak
azpimarratzea. Bidelagun izan genuen,
iparrorratza izan zen, abertzalea,
euskalduna, altxor humanoa... eta
zenbat gauza gehiago. Bere bidea
jarraitzen ahaleginduko gara, atzo baino
indar gehiagoz, gaur, bere omenez.

Poema ezagunak dioen antzera,
herritar batzuek herriaren alde egun
batez lan egiten dute eta onak dira,
beste batzuk urtebetez egiten dute
lan herriaren alde eta hobeak dira
urte luzez lan egiten dutenak ere
badaude eta horiek oso onak dira
baina badira bizi guztian herriaren alde
lan egiten dutenak: eta horiek, horiek
ezinbestekoak dira.

Horietakoa zen Imanol,
ezinbestekoetakoa.
Ohore bat izan da Imanol, eskerrik asko.



Bidelagun izan genuen,
iparrorratza izan zen,
abertzalea, euskalduna,
altxor humanoa...



Julian Eizmendi, Luciano Lazkano, Eneko Etxeberria, Iñaki Errazkin eta Jose Maria Bastida hileta-elizkizunera sartzen.



Otsaila

8, ostirala

EUSKAL INAUTERIEN KALEJIRA

Ordua: 18:30ean

Lekua: Azpeitiko kaleetan

ARTE ETA DISEINOKO
IRAKASLEEN ERAKUSKETA

IZENBURUA: Momentuak

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

9, larunbata

ARTE ETA DISEINOKO
IRAKASLEEN ERAKUSKETA

IZENBURUA: Momentuak

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

Musika Banda KBEAT eta Olatz Prat-
en eskutik "Berbena-dantzaldia"

Ordua: 22:30

Sanagustin kulturgunean

10, igandea

ELEGANTE EGUNA

ARTE ETA DISEINOKO
IRAKASLEEN ERAKUSKETA

IZENBURUA: Momentuak

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

79'KO KORRIKA TXIKIA PROIEKZIOA

Ordua: egunean zehar

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

11, astelehena

ASTELEHEN INAUTERIA

ARTE ETA DISEINOKO
IRAKASLEEN ERAKUSKETA

IZENBURUA: Momentuak

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

12, asteartea

ASTEARTE INAUTERIA

ARTE ETA DISEINOKO
IRAKASLEEN ERAKUSKETA

IZENBURUA: Momentuak

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

13, asteazkena

ARTE ETA DISEINOKO
IRAKASLEEN ERAKUSKETA

IZENBURUA: Momentuak

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

Otsailaren 16tik 28ra arte

ANTONIO VALENCIAREN
ERAKUSKETA

Gaia: Beste Zenbait Zomorro

Ordua: 12:00etatik 14:00etara
eta 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

17, igandea

IÑAKI SALVADOR +
SAITUA+ ZUBILLAGA

Betiko Kantak

Ordua: 20:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

18, astelehena

LITERATURA SOLASALDIA

"Belarraren ahoa" Harkaitz

Canonen eleberraren eztabaida

Ordua: 18:30

Tokia: Azpeitiko Udal liburutegia

19, asteartea

AHO BIZARRIK GABE SOLASALDIA

Hizlaria: Martxelo Otamendi

Ordua: 19:30etatik

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

21, osteguna

ZINE FORUMA

POLLO CON CIRUELAS

Antolatzailea: TA3

SOREASU ANTZOKIAN

Ordua: 21:30

23, larunbata

POTXINPATXIN "Txangoa"

Ordua: 17:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

24, igandea

AHIZPAK, BI ARREBAK ikuskizuna

Ordua: 18:00

Sanagustin Kulturgunea

ONDO PASATU



2013